

Bizkaiko Bertso Saio Klinikoak 2016 - Oinarriak

Otsailaren 4an, Bilboko Kalperapekon (Zazpikaleetan)

- 1. Ordutegia:** Bertso Saioa 19:00etan izango da eta geroago, 21:00etan afaria
- 2. Taldeka.** Txapelketa taldeka egingo da. Talde bakoitzak bi edo hiru pertsona izango ditu eta parte-hartzaileak osasun-arloarekin erlazioa duen edonor izan daiteke.
- 3. Izena emateko.** Bidali mezua ooe@oegunea.eus-era otsailaren 2 baino lehen.
 - Izena beti banaka emango da. Izen-abizenak, espezialitatea eta lantokia behar dira. Kontakturako helbide elektronikoa bat eta telefono bat beharrezkoak dira.
 - Taldeak zozketa bidez osatuko dira.
 - Ikusle bezala bertaratzeko aukera ere badago. Hala nahi izanez gero, izena ematerakoan jakinarazi beharko da.
- 4. Afaria.** Saioa hasi aurretik afariaren balioa, 30 €, emango du pertsona bakoitzak.
- 5. Taldeen izenak.** Talde bakoitzak IZEN BANA izango dute.
- 6. Kanporaketa sistema.**

Txapelketa kanporaketa-sistema bidez jokatu da. Bertsolariak kanporaketa saio bakoitzean bertso-kopuru jakin bat kantatuko dute eta taldeek idatziz bertso bakoitzak aipatzen duen diagnostikoa edo hitza asmatu behar dute. Denak asmatu ezean taldea kaleratua izango da. Bertsoak ez dira inoiz bitan kantatuko. Kanporaketan bidez bi talde igaroko dira finalera. Kanporaketetan zein finalean berdinketa emanez gero, epaimahaiak erabakiko du nola hautsi berdinketa.
- 7. Erantzuna.** Erantzuna TALDEKO BOZERAMAILEAK (beti pertsona berak) emango du. Erantzun bakarra onartuko da taldeko.
- 8. Finala.** Sailkatutako bi taldeek finala jokatu dute. Horretarako, talde bakoitzak lau bertsoari dagokien diagnostikoa edo hitza asmatu beharko du, bertsoan diagnostikoa asmatzeko nahiko datu egongo delarik. Asmatuz gero, bi puntu lortuko dituzte, eta asmatu ezean beste taldeak izango du aukera errebote bidez puntu bat lortzeko. Oraingoan ere bertsoa behin bakarrik kantatuko da.
- 9. Saria.** Finalera iristen diren bi taldeek saria jasoko dute.
- 10. Epaimahaiak.** Epaimahaiak honako oinarri hauek aldatzeko eskubidea du, txapelketan antolaketa-arazoak bideratzeko beharra ikusiz gero.
- 11. Arauen onarpena.** Txapelketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar ezinbestean.